

## PP-REN LANGABEZIA ERREFORMA

# Dekretu bat, eta huelga bat bitan

- Sindikatuen ustez asteazken eta osteguneko Greba Orokorra erantzun haundia eta zabala izango du
- Berriak elkarteak haserrea adierazi du sindikatuek deialdi bakarra egin ez dutelako.

ASTEAZKEN eta osteguneko Greba Orokorra deitua dago, Aznarrek dekretuz onartu duen Langabezia Erreformaren kontra. Legeak aipatzen duenez, Erreformak ez du mesedea besterik ekarriko: lan merkatuak hobeto funtzionatu du, lana bilatzeko joera indartu egingo da, eta abar. Helburua: 2010garren urterako denek lana izatea. Erreformak dioenez, neurri guztiak hori lorzeko pentsatuta daude.

Sindikatuaren ustez, berriz, Langabezia Erreformak gutxienez duen jendea oraindik-eta gehiago kaltetuko du, eta Greba Orokorra deitu dute. Bakoitzak bere matizekin, baina, sindikatuek esaten dutena da Erreforma langile eta langabetuen eskubideen kontra dijoala erdiz-erdi: batetik, tramitazio-salarioak kendu eta despidoa merketu eta bestetik, langabetuak delinkuente alperren pare jarri.

Sindikatuak gogoratu arazten dutena da langabezia subsidioa ez dela gobernuaren erregalia, eta langileek lortutakoa dela.

Sindikatu abertzaleek Euskal Herrian marko laboral propioa ere eskatuko dute, Erreformaren aurkako greban.

### Bi konbokatoria

Sindikatuak ez dute elkar hartu Langabezia Erreformaren kontra greba egiteko. ELA eta LABek eskatzen diote CCOO eta UGTri euskal marko laborala errespetatu eta 19an egiteko greba, 35 lanorduko astea eskatu zen hartan bezelaxe. Horretaz gain, sindikatu abertzaleen ustez, greba 20rako deitzea CCOO eta UGTri



INEMeko langileak Urumea bazterrak txukuntzen.

## ZER DIO ERREFORMA LEGEAK

1-Erreformak ekarriko duena da lan merkatuak hobeto funtzionatzea eta lana bilatzeko joera indartzea. Helburua: 2010 urterako denek lana izatea.

2-Langabetuen eskubideak mantendu egingo dira eta egoera txarrean dauden eskubideak berriz, hobetu egingo dira.

3-Gobernuak familia izan duten emakumei urtebeteko Seguritate Sozial osoa ordainduko die, umea izan eta handik bi urtera lanean hastekotan.

4-52 urtetik gorakoek aukera izango dute sub-

sidio zati bat joso eta lan egitea. Kontratatzea % 50 merkagoa izango da.

5-Subentzioak daude alojamendu eta etxe aldaketa gastuetarako.

6-Paroa ez da kenduko lan bati uko egiteagatik. Arrazoirik gabe hiru aldiz ukatu eta gero kenduko da.

7-Langabezia kobratzen ari direnek S.A. bat edo kooperatiba bat sortu nahi badute, kobratzeko gelditzen zaiena erabili lezaket Seguritate Soziala ordaintzeko. Autonomo egin nahi dutenek ere, berdin.

txeke zuria ematea da, berriro Aznarrekin erreforma laboralak firmatzeko, eta ez daude horretarako prest.

CCOO eta UGTk gauza oso beste era batera ikusten dute. Kronikari adieraziaren arabera, ELA eta LABek ez dute planteatu ere egin deialdi bateratu bat egitea. Bestalde, defenditzen duten Langabezia Erreforma Madriletik datorrela diote eta erantzunak ere estatu osokoa behar duela. Eta ez hori bakarrik. Ahal bada, erantzun sindikala Europara zabaldu behar dela, eta zabaldu dela, Aznarren politika Europako eskubi-giroan ulerteru behar delako.

### Hernaniko datuak

ELA eta LABek Hernaniko delegatu sindikalen % 70 inguru dute (ELAk % 40 eta LABek %30) eta CCOO eta UGTk % 28 (CCOOk % 19 eta UGTk % 9). Portzentaje horretan ez dira Hezkuntzako datuak sartzen.

### Berriak elkarte haserre

Zenbait sindikatuk onartu dute bi deialdi egitea penagarria dela. Batetik, sinesgarritasuna galtzeko arriskua duelako, eta bestetik, jendea nahastu lezakeelako. Horren adibide izan liteke Berriak Merkataria eta Ostalari elkarteak adierazi duena.

Berriak elkarteak greba dela-eta asanblea egin du. Kronikari adierazi dionez, merkataria eta ostalariak ez daude batere gustora bi deialdi egin izanarekin. Bere ustez, sindikatuek ez dute konfiantza hartu bi konbokatoria egiteak sektore horretan zer ondorio dakarkien, sektore hori beti solidarioa izan delako. Berriak adierazi duenez, bi proposamen izan ziren: 19an istea eta 20an istea. Azkenean, gehienak 19an istearen alde azaldu omen ziren. Hala ere, Berriak asanbleak eskatu du bakoitzak erabakitzen duena errespetatzeko. □

## San Joan Klasikako lasterketa

GAUR izango da Hernaniko San Joan Klasikako txirrindulari lasterketa. Afizionatu mailako 25 txirrindulari taldek hartuko dute parte, guztira 120 txirrindulari inguru izango dira lasterketan. Horieta sei hernaniarrak.

Txirrindulariek 134.5 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Goizeko bederatzietan Urbietatik atera eta Hernani, Astigarraga, Garbera, Usurbil, Orio, Aia eta Urnieta inguruetan ibiliko dira eguerdiko 12:10ak aldera arte. □

## Hernani-Aia gaur

HERNANIK Herri Arteko partidua jokatu du gaur Aiaren kontra. Semifinaletako bueltako partidua da. Joaneke partidua Hernanik irabazi zuen 2 eta 1 baina bueltako partidua gogorra izango da. Kadeteetan Arrieta-Gorrotxategi izango dira, jubentzetan Otegi-Alvarez eta senio-urretan Erroizenea-Mendizabal. Partidua kiroldegian izango da arratsaldeko 16:30etan. □

## Antziolako etxeen zozketa

ASTELEHENEAN egingo da Antziolako bigarren faseko protekziozko etxeei dagokien zozketa. Guztira 96 etxe zozketatuko dira; 48 protekzio ofizialekoak dira (505 dira etxe hauek izan dituzten eskariak) eta beste 48 sozialak (183 dira zozketan parte hartzeko onartuak). Zozketa goizeko 10:00etan izango da kiroldegian. □

## hkronika.com

ARAZO teknikoak direla-eta, Kronikako web orria eguneratu ezinda ibili gara. Ahal bezain azkar konponduko dugu. □

Gipuzkoarako eskusiban **LAND ROVER** kontzesionario ofiziala.  
EUROLAN 4 x 4 (VOLVO ondoan) - ☎ 943 33 10 06

Kale Nagusia, 7  
☎ 55 00 32  
HERNANI

**SANTA BARBARA**  
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzen ditugu

● Peugeot 306 - HDI,	aire egokitua	SS-BF
● Peugeot 205 - 1.4,	5 ate	SS-AV
● Opel Astra Caravan - 1.6		NA-AK
● Citroen AX - diesela,	5 ate	VI - L
● Opel Corsa - 1.2	5 ate	SS-AK
● SEAT Ibiza - Diesela	3 ate	SS-AJ
● Volkswagen Polo - 1.3	3 ate	SS-AJ
● Ford Escort	Diesela	SS-AC

....eta hainbat kotxe merke.



Ezkerrean Gorka Gomez eta eskubian Ixiar Urdangarin, helmugako pasaeran.

## Gorka Gomez eta Ixiar Urdangarin, irabazle

■ Gorka Gomezek iazko errekorra hautsi zuen ■ 360 bat lagunek hartu zuten parte.

HERNANIKO bi gaztek irabazi zuten atzo IV Axeri Bila Lasterketa. Mutiletan Gorka Gomezek irabazi zuen, eta nesketan Ixiar Urdangarin. Gorka Gomezek gainera lehengo urteko errekorra hautsi zuen. 28 minutu eta 54 segundutan egin zituen 9 km.

Parte hartze ona izan zuen karrerak. Helduak eta umeak kontatuta 360-370 korrikalari. Helduetan 261etik 100 inguru hernaniarrak ziren.

Bero itoa izan zuten korrikalariak eta batzuk nahiko gaizki pasa zuten karrera bukatzeko. □

### SAILKAPENA

#### Senior mutilak

1-Gorka Gomez	0:28:54
2-Xabier Iturralde	0:29:22
3-J.Javier Cuadrado	0:29:41

#### Senior neskek

1-Ixiar Urdangarin	0:34:07
2-Eva Esnaola	0:37:00
3-Izaskun Zubeldia	0:37:53

## Errugbi taldeko bazkaria

BAZKARIA egin zuen atzo hernaniko errugbi taldeak denboraldiari amaiera ona emateko. Bazkal aurreko giroa alaitzeko, txaranga ibili zen herriko kaleetan barrena. 100 lagun inguru bildu ziren jokalarik, entrenatzaile, delegatu eta gonbidatuen artean. Urtean zehar egindako lanaren ordainean jai giroa izan zen nagusi atzokoan. □



100 lagun inguru bildu ziren Plaza Berriko bazkarian.



Ostiraleko aurkezpena.

(Argazkia: Biyok)

## SAN ANTONIO JAIK EREÑOTZUN



Ezkondutza gabeek irabazi zuten partidua, penaltitan.

## Bertso jaialdia, gaur arratsaldean

GAURKO egitarauan, goizean: 8:30etan txistulariak; 11:30etan sagardo probaketa; eta 12:00etan Ttarla dantza taldea. Arratsaldean: 18:30etan Bertso Jaialdia. Gero errifa zozketa eta afari herrikoia. Gauean: Iñatzu's DJ.

Bestalde, herenegun jokatu zen Pelota Txapelketako finala. Irabazle: Zabala-Albizu, Tutu-Iturberi 22-16 irabazita. □

**ARALAR TABERNA**  
ZAPA KALEA 8, Tel. 943 33 15 06

**SARETXO JATETXEA**

Zatoz zure aisialdiaz gozatzena. Karta, menu berezia, jolas lekua...



Marraka-Enea Baserría  
Sta Barbara auzoa 92 -HERNANI  
Tel.: 943 556 481-943 554 675

### ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Taxiak: 943 550093</li> <li>▶ Udaltzaingoa: 943 333288</li> <li>▶ DYA: 943 464622</li> <li>▶ Autobusak: 943 556662</li> <li>▶ Anbulatorioa: 943 006666</li> <li>▶ Jokalari anonimoak: 943 331103</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Egunez: Gomez Kale Nagusia 15 ☎ 943 554892</li> <li>▶ Gauez: Diaz Andoain. Nagusia 19 ☎ 943 592057</li> </ul>

### IRAGARKI MERKEAK

Pelukera laguntzailea behar da Hernanin. Presazkoa da: 943-556368

Londresen *au-pair* moduan euskal-ingeles etxe batean irailetik aurrera lanean hasteko neska bat behar dut: Tfnoa: 00441189611153 (Paula).

**DORRONSORO**

**OKINDEGIA**

Bertan egindako kalitatezko ogia

**J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L**  
Lizeaga, 7 ☎ 943 33 36 18 -20120 HERNANI